

COVID-19 JARDUTEKO PROTOKOLOA

Euskadiko Futbol Federakundetik momentu batean taldeko norbaitek positiboa ematen badu jarraitu beharreko pausuak dokumentu batean helarazi ditugu.

Jarraitu beharreko gomendioak:

1. **Protokoloa betetzearen arduradunak** jokalariaren/teknikariaren kasu positiboa **idatziz jakinarazi** behar du (info@euskadifutbol.eus) **posta elektronikora**, hurrengo informazioa adieraziz:
 - a. Positibo eman duen jokalariaren, teknikariaren edo taldeko kidearen izen-abizenak.
 - b. Gertaera kronologikoa eta gainerako taldeko partaideekin harremanetan jartzeko azken eguna deskribatzea.
 - c. Futboleko kideekin aldagelak partekatu dituen eta zenbat denbora eman duen jakinaraztea.
 - d. Entrenamenduetan musukoa erabili duen edo ez.
 - e. Sintomaren bat eduki duen edo ez.
2. Oso **garrantzitsua** da klubak **Osakidetzako aztarnariaren irizpidearen berri ematea**, gainerako langileekin harreman estua dagoela uste duen ala ez jakiteko, izan ere, arlo honetako agintari gorenaren osasun-irizpidea baita. Konfinamenduaren kasuan, 10 eguneko aldi horren hasierako data adieraziz.
3. **Klubak** kasu **positiboaren ziurtagiri medikoa** aurkeztu beharko du egiaztagiri moduan partidua atzeratzen bada.
4. Euskadiko Futbol Federakundeak **jasotako informazio** guztia **Federazioaren arduradun medikuari** helaraziko dio, atzeratzeko eskaerari buruzko erabakia har dezan.
5. Euskadiko Federakundeak, **mediku arduradunak hala erabakitzen badu, Batzorde Diziplinarioaren bitartez, partidua atzeratzeko ebazpena** emango die eskatu duen klubari, aurkariaren klubari eta Euskal Batzordearen Epaileari.

GARRANTZITSUA: Protokoloan ezarritakoa aplikatu ezazue (gure webgunean aurki dezakezue) eta, zalantzarik izanez gero, kontsultatu inolako arazorik gabe.

BABESTU ZAITEZ - CUÍDATE